

SALTO ARAU ETA AZALPENAK

Azkoitiako Azkarate edo Madariaga zubian gaude. Zubi honek saltorako erabil daitezkeen hainbat altuera ditu. Batean, altuenean, **60 eta 61m** artean ditu eta, gutxienean, **30 eta 40 artean**. Zubi honetan bestelako altuerak eskaintzen dituen enpresak (70 eta 50eko altuerak eskaintzen dituztenak badaude) ez du sekula ondo neurtu ala gezurretan dabil.

Guk hemen **hainbat salto mota desberdin** eskaintzen dizkizugu (zubisalttoa, zubi2salttoa, gomasalto txikia, gomasalto handia, gomapendulua, tirolina, tirol jauzia, gomatirola, salto kontrapisatua, salto katapultatua, supersalttoa...), eta horietako bakoitzaren azalpen zehatzak emango dizkizugu. Baina, lehenbizi, arau eta azalpen orokor batzuek.

Egingo d(it)uzun **ekintza(k) oso segurua(k)** izan daite(z)ke, zure aldetik geure gomendioak zorrotz gordetzen baldin badituzu, bederen.

Kontuz errepidearekin. Hemen egingo duzun ekintzarik arriskutsuena errepidea gurutzatzea izango da. Beraz begira ondo alde bietara (behin eta berriz), bai errepidea iragan aurretik, baita pasa bitartean, autoak abiadura ikaragarrian pasatzen baitira (200km/h-tik gora ere).

Zaude beti bi barandilen artean. Ez zaitetz bertatik irten. Gomapenduluko lehenengo erorikoa eta zubi2saltoko bigarren erorikoa ikusteko ez baldin bada, ez zaitetz beste aldera pasa. Eta kasu horietan, mesedez, kontu ikaragarria izan ezazu: begiratu ondo eta hainbat aldiz alde bietara.

Kontuz metalezko barandilari eusteko lurretik ateratzen diren posteekin. Gure belaunaren altueran daudenez oso kolpe txarra eragiten dute.

Utzi pakean langileak. Ez itzazu entretenitu galderak edota komentarioak eginez, seguritatean eragin dezakezu, edo, gutxienez, euren lan erritmoan. Edozein galdera baldin baduzu, jo ezazu saltoburuarengana, berak du informazio zuzenena eta osatuena, eta, gainera, zeure oharra besteentzat ere interesgarri izan daitekeela erabaki dezake.

Kontuz barandilarekin. Jende asko biltzen denean, denak barandilaren gainera etorritz gero hau apur daiteke. Beraz, saiatu berau ez zamaten, eta **ez ezazu zilborra honen gainetik pasa behin ere**, gure grabitate gunea bi zentimetro zilborraren azpitik dago, eta hau barandilaren gainetik pasatzen baldin bada, adi, eror zaitetzke eta!

Ez ezazu zaborrik bota hemen. Galdegin ea badagoen zaborrarentzat poltsaren bat, eta ez baldin badago prestatuko dugu. Jende asko pasatzen da bertatik, horregatik zubia eta ingurua zaindu behar ditugu, itsusia eta desatsegina izateaz gain arriskutsua ere izan daiteke zaborra botatzea (infekzioak, suteak, mozketak, kolpeak, erorikoak...eragin ditzake).

Zubian sekula izan ez baldin bazara, hau da, ez baldin badakizu, galdegin zein den **igotzeko eta** (salto egin behar ez baldin baduzu) **jaisteko bidea** ere. Badago oinez jaisterik, baita kotxez ere, galdetu saltoburuari. Jakin gabe edo galdetu gabe igotzen saiatzen diren denak ehuntalako turismo itzulia egiten du mendian zehar.

SEGURITATE ARAUAK

Esan dugun bezela, **ekintza** oso segurua da egingo duzuna. Beno, hobeto esanda, ekintza oso arriskutsua da berez, baina **erabat segurua egin dezakegu**, behar diren neurriak hartuz gero.

Horretarako **seguritate sistema eta neurri guztiak** (gutxienez) **bikoiztuta daude**. Batek huts eginez gero (eta daramatzagun milaka saltoetan ez digu bakar batek huts egin), beti badago beste bet horren hutsunea estaltzeko. Bi elementuk edo neurrik huts egin beharko lukete istripua gertatzeko, eta hori erabat ezinezko bihurtzen dugu.

Ez zaitetz salto puntuan ipini gure baimena jaso arte. Saltoburuak eman behar dizu baimena, berak bakarrik, eta izenezko baimena: zeure izena esan behar du, bestela, arren, ez obeditu. Adibidez: “**Mikel igo**” edota “**Amaia, pasa beste aldera**”.

Ez ezazu salto egin baimena jaso arte: “3...2...1...Mikel!”. Edota “**3...2...1...Amaia!**”. Argi eta ozen. Baimena jaso aurretik ez salto egin inola ere, Euskal Herrian (orain arte) gertatu den istripurik larriena horrexegatik gertatu zen, salto baimena ez itxaroteagatik. Gehienez 3 aldiz egingo dizugu atzerakontua (15 segundo inguruko tarte), hori pasata, saltoa galtzen duzu, eta dirua.

Gomendioa: **fida zaitetz**, egizu salto lehenengo atzerakontuan. Zenbat eta denbora gehiago pasa salto puntuan gehiago sufrituko duzu. Sufrimendua metatuko duzu. Senak (salbelaldean daramagun MSDOS sistema eragileak) beti ezetz esango dizu (“**EZ! EZ! EZ! EZ! EZ!**”): senaren kontrakoa baita egin behar dugun hori, eta beste inolako animaliak ez luke sekula ere egingo. Baina guk badugu beste sistema eragilea (WINDOWS), eta beronek salto egitera gonbidatzen gaitu (“**Zergatik EZ?**”). Fida zaitetz honetaz. Gizakiok ezin ditugu geure mugak onartu, geure irudimenak (dugun abstrakzio gaitasunean oinarrituta) edozein muga gainditzeko aukera ematen baitigu (itsaspean ibili, hegan egin, ilargira joan, abiada ikaragarriak lortu...). Altuerari beldurra muga hauetako bat da. Eta beldur hori gainditzea gozagarria da. Are gehigo, zenbat eta beldur gehiago izan salto egin aurretik, are gehiago gozatuko duzu salto egin eta gero (beldur gehiago gainditu baituzu).

Benetan. **Bostmila salto inguru egin ditugu** orain arte, eta horietak bakarrik 4 pertsona irten ziren gaizki, inpresio handiegiarekin, disgustura, “txungo”. Beste guztiak gustura irten dira, kontent edota euforiko. **Gehienek berriz salto egiteko gogoz**, salto handiagoa ere egiteko moduan.

Garrantzitsua: **salto egiteko unean fida zaitetz**. Egin dezakezun gauzarik arriskutsuena zera da: salto egiten hasi eta, segidan, atzera egiten saiatzea, tutuei berriz heltzen ahalegitea, alegia. Hori eginez gero kolpe txar bat jaso dezakezu, baita hiltzeko moduko istripua eragin. Hobeto da ez salto egitea, edota beste bati helduta egitea, horrela arriskatzea baino. Berriz adieraziko dizugu: horrela jokatuz gero seguru hartuko duzu min, baita agian, bertan seko geratu. Beraz kontuak atera itzazu!

Oharra: inolako saltotan **ez duzu zertan batere minik sentitu behar**. Ez du inolako tiroirik eman behar. Sokak edota gomak tentsatu egiten dira, baina dena behar bezala prestatuta dago inolako minik sufri edo senti ez dezazun.

PROZEDURA

Lehenbizi, azalpenak jaso (edota irakurri) eta, gero, **salto papeleta bete behar duzu**. Salto eta pertsona bakoitzeko papeleta bat, salto horri dagokiona. Egin nahi duzun saltoari dagokiola erreparatu. Arreta ipini, eskatzen duen informazio guztia emateko eta eskaintzen duen guztia hartzeko (hiru hizkuntzatan dago) eta behar bezela eta letra argiz bete. Eskatzen zaizun informazio guztia idatzi, arren, eskatzen den guztia nahita eskatzen dizugu, eta behar dugulako. Mesedez, data guztiak (zeure jaiotzakoa eta salto egunekoa) urtea-hilabetea-eguna ordenean bete beti, lau-bi-bi digitorekin beti (adibidez: 1966-07-31).

Zaindu papeleta. Galtzen baldin baduzu, edota erabat hondatzen baldin baduzu, guk ez dugu ardura hartuko, berdin kobratuko dizugu. Beraz, zaindu ondo. Kontuz haizearekin, kontuz euriarekin. Betetzen duzunean arretaz irakurri eta eskatzen dizkizun datuak idatzi, eta eskatzen dizun moduan (datak urte-hile-egun, pisua kilogramotan, altuera zentimetrotan...). Ez bete berau salto egingo duzula ziur ez baldin bazaude. Ez eskatu papeletarik (eta, batez ere, ez bete) egin nahi duzun saltoa hori dela ziur egon arte. Betetako papeleta ez dugu atzera hartzen inola ere.

Bigarren papeleta bat betetzen duzunean (beste egun batean edota egun bertan gurekin aurretik papeleta bat beteta bazaude) aski da hurrengo datuak jartzea: **salneurria, izena(k), abizena(k), salto eguneko data eta izenpea** (18 urtetik beherakoa izanez gero, baita arduradunaren datuak eta izenpea).

Beno, papeleta bete duzu eta **uhalak jartzen dizkizugu**: bata soin guztia hartzen duena (integrala) eta beste bat (gutxienez) zangotik helduko zaituena. Hauek guztiak ondo lotuta behar dute egon, estu, baina mina egitera iritsi gabe.

Hurrengo atalean salto posturak aztertuko ditugu. Hemen aurreratuko dugun bakarra zera da: **aurrekoz** (hutsunera begira) **salto egiten duenak** zangoetan hirugarren elementu bat eramango du **“velcro zinta”**, salto, posturarik seguroenean egiteko bidea emango diguna. Atzekoz salto egiten duenak, ordea, ez du zertan eramane behar (gomasaltoan izan ezik), hau da, aukeran izango du, zangoetatik zintzilik eta atzera salto egin nahiko balu, alegia. Gomasaltoa egiten duenak velcro zinta derrigorrezkoa du, aurrekoz zein atzeko salto egiten baldin badu ere, edota, zuzenean zango bietatik lotuta joango da, eta bularrean berraseguraturia, baina beti zangotatik lotuta.

Velcro zinta daramanak guk kentzeko esan arte itxaron. Une horretan zeure ezkerreko besapetik abiatzen den soka arrosari tira egin eta berehala askatuko da, zutik ipiniz, lur hartzeko gertu.

Dena prest dagoenean, bai zeure ekipamendu pertsonala, baita saltorako sistema ere (blokeoak, sokak edota gomak), **salto puntuan jartzeko garaia iritsi da**. Saltoburuak izenezko agindua ematen dizunean, jar zaitez bertan, barandilaren gainetik eginez gero bi barren artean, behetik eginez gero, barandilaren bestaldean.

Orduan, azken aldiz, dena errepasatuko dugu, eta atzerakontua hasiko da: **“3...2...1...(zeure izena)!”** Aprobetxa ezazu eta egizu salto orduan. Gehienez hiru atzerakontu izango dituzu. Horren ostean, saltoa egin ezean, hau galduko duzu, baita dirua.

Zenbat eta denbora gehiago pasa salto puntuan gehiago sufrutuko duzu (sufrimentu gehiago metatuko duzu), beraz, **gomendioa, egin ezazu salto lehenengo atzerakontuan**, eta horrela gutxiengo sufrimenduarekin ahalik eta gehien disfruta ezazu. Unea zaila da, baina zenbat eta lehenago pasa hobe da, lehenago disfrutatuko dugu. Pentsa ezazu **inbertsio bat** dela. Orain **duzun beldur guztia gozamen bihurtzeko** aukera duzula pausu bakar hori egitearekin. Egin ezazu, beraz, konfidantzaz eta lehenbailehen.

POSTURAK

Salto egiteko **postura eta aukera desberdinak** izango dituzu eskura: **bakarka ala binaka, aurrekoz ala atzekoz, goitik ala behetik...** egiterik izango duzu salto. Gomendioa, egin ezazu barandila gainetik, erosoago eta seguruago da.

Gomasaltoaren kasuan, gurekin egiten duzun lehenengo aldia baldin bada bederen, **buruz** egin beharko duzu salto, eta beti zangotatik lotuta, horrela erortzerakoan bapateko astindua jasotzea ekidingo duzu, zutik (gogora oinetatik lotuta zoazela) salto egiterakoan gertatzen dena.

Postura bakoitzak baditu bere ezaugarriak eta ondoriozko sentsazioak. Saltoa atzekoz egitea jende gehienari errazago gertatzen zaio, ez baita zuloa begien aurrean ikusten. Baina bada jendea atzekoz salto egitea gogorrago egiten zaiona, nora doan edota nora eroriko den ez ikustea, alegia. Zeure kasua zein den ezin dizugu esan, postura bakoitzean salto bana egin gabe, behintzat. Beraz, zeuk aukeratu hutsunera begira ala zubira begira salto egitea nahiago duzun.

Erori bitartean ere, **sentsazioak desberdinak izaten dira aurrekoz ala atzekoz salto eginez gero.** Aurrekoz eginez gero ia bira oso bat egiten duzunez dena nahasiagoa da, azkarragoa, bapatean pasatzen da. Atezkoz eginez gero, zutik mantentzen baldin bazara hain zuzen ere (eta horretarako esku bat sokei heltzen eramatea aski da), *grabagailuak* hobeto funtzionatzen du, saltoa luzeago egiten zaigu, gahiago konturatzen gara guztiaz.

Zer da hobeto? Ezin esan. **Bakoitzak aukeratu beharko du.** Nahi duzuna *flasha* baldin bada, inkontzientzia, *kaña*, aurrekoz egitea gomendatzen dizugu (edota gomasaltoa egitea). Nahi duzuna zera baldin bada: salto egiteko unean ahalik eta gutxien sufritzea, atzekoz egin. Edota zeure saltoa ahalik eta gehien dastatuz, bizituz, konturatuz egin nahi baldin baduzu, egin ezazu atzekoz eta zutik.

Norbaitek **barandila askatzeko problema baldin badu**, azken unean berau askatzerik ez baldin badu, egin dezala *laparena*, hots, beste bati lotuta salto egitea. *Tandem saltoa* edota *lapasaltoa* egiterakoan (bi izen horiek erabiltzen ditugu guk), azken unean, bakar batek askatu behar du heldulekua, bestela, gutxienez, bitako batek min hartzeko arriskua dago. Horregatik, askatzeko arazo gehien dituenak, besteari heldu behar dio. Eta askatzeko erraztasun gehien duenak, bitartean, azken askatzearen erantzunkizuna izango du.

Bi pertsonak batera salto eginez gero, biak barandila gainetik egingo duzue, **eta biak zangotatik lotuta** eta bularretik berraseguratuta. Horregatik, lur hartzeko, beste norbait(zur)en laguntza behar duzue. Horregatik, egin ezazue salto beste norbaitzuren atzetik, eta geratu daitezela behean zuei lur hartzen laguntzen.

ZEURE BETEBEHARRAK

Egiten duzen posturan egiten duzela ere, **salto egin eta gero, soketatik deskonektatu** behar duzu eta, gero, zeuk erabilitako sokak espreski horretarako botako dugun soka bati lotu, horrela hurrengo saltoa presta ahal izan dezagun.

Horretarako zeuk **gainean daramatzazun hiru mosketoiak askatu behar dituzu**, erroksa iriki, atetxoa zabaldu eta zeure uhaletatik atera, sokak barnean geratzen direla. Mosketoiotatik atera behar diren gauza bakarrak zeure uhalaren bularreko *belarritxoak* dira eta zeure zangouhal(ar)en *belarritxo(k)* dira, beste deus ere ez. Eta, errekuperatzeko bota dizugun sokari lotzerakoan, arren, konekta ezazu mosketoi bakarra, beste guztiak (lotuta jarraitu behar dutenez) atzetik etorriko baitira. Eta mosketoiaren erroksa ez ezazu itxi. Ez da beharrezko, ezta, komenigarri ere.

Salto egin eta gero, **salto egin aurretik bezala ekipatuta geratu behar duzu**: uhal integrala soina inguratzen, zangotako uhal(k) txorkatilan, eta (aurrekoz eta bakarrik salto egin baldin baduzu) velcro-uhala zeure ezkerretako besapetik zintzilik. Ez duzu mosketoi bakarra behar zeuri lotuta, ezta batere. Mosketoiak soketan geratu behar dute, beti.

Salto egin eta gero **zubira igo zaitzke ala zubipean geratu**, hurrengo saltoak behetik ikusteko.

Beste saltoren bat egiteko asmoa baldin baduzu, ala aukera baldin badago, **arnesak jantzita laga itzazu**, horrela hurrengo saltorako ekipatzeko lana aurrezten dugu. Egin behar ez duzula ziur bazaude, uhalak kentzeko baimena eskatu, eta geuk esandako tokian utzi edota geuk esandako bidetik bidali. **Ez itzazu ken baimenik gabe**. Eta soineko uhalak kentzeko ez duzu berau askatu behar, bularreko plastikozko itxigailua iriki eta sorbaldetako tirak besotik bera jaitsi besterik ez da egin behar.

ZUBISALTOA

Zubisaltoa zer den ez baldin badakizu, **pendulu moduko saltoa dela** esango dizugu. (Bere historiaren berri jaso nahi baldin baduzu begira www.ehabentura.net). Soka dinamikoekin egiten da (eskaladarako erabiltzen direnetakoekin) eta, zubi honetan, zubisalto puntuan 30m-ko altuera dago, horietatik 22 edota 24 m eror gaitezke, barandilaren azpitik edota gaineratik salto egiten dugun arabera. Barandilaren gaineratik salto eginez gero 31 metroko altueratik 24 eroriko gara.

Erortzen hasten garenetik lehenengo aldiz penduluaren beheneko puntutik (22 ala **24m** erori eta gero) pasatzen garen arte 2 eta **2,25 segundo** artean pasatzen dira, eta une horretan **70Km/h** inguru lortzen ditugu.

Salto hau egin eta gero, **lurrera jaitsiko zaitugu** (saltoaren kontrako puntuan). **Aska zaitez**. Saltoko sokak elkarrekin enroilatuak baldin badaude, espiralizatuta, kontrako norabidean bira itzazu askatzen diren arte. Bitartean konexioa egiteko soka urdina botako dizugu, zubiaren beste aldean (salto egin duzun aldearen bertikalean) ikusiko duzu. Zeure saltoko sokak askatu gabe, zoaz alde hortara **eta konexioa egin**. Zeuk erabilitako mosketoia sar ezazu soka honek muturrean duen korapiloaren barruan eta abisu eman, soka igo eta hurrengo saltoa presta dezagun.

Esan bezala, salto honetan **22 ala 24m** erori zara, **30 edota 31m** metroko altueratik eta lurretik 8 edo 7m-tara geratu zara. Salto ertaina da, baditugu zubisalto txikiagoak, eta handiagoak (Tolosan 33m/38), edota guk asmatutako beste pendulu handiagoa: zubi2saltoa. Segidan aurkezten dizugu.

ZUBI2SALTOA

Salto honen historia ezagutu baldin baduzu, nork, noiz, nola, non eta zergatik asmatu zuen jakin, begira www.ehabentura.net. Laburki, 1999ko ekainan asmatua genuela esango dizugu, eta uztailearen 3an estreintau genuela. Ordudanik 2.000 salto inguru egin ditugu (eta egin *dira*). Eta **jendeak**, ordaintzen duena haintzat hartuta, **gehien baloratzen duen saltoa da**.

Zubi2saltoa **zubisalto hobetua dela** esango dugu, Azkoitiako zubi honen altuera itzela aprobetxatzeko asmatua. Puntu horretan 60m-ko altuera du, barandila gainetik 61. Teknika arruntarekin 22 edota 24 m erortzen gara. Zubi2salto eginez, ordea, lehenengo erorikoan horixe jaitsiko gara (22 ala 24), baina bigarreanean halako bi: 44 ala 48m.

Salto egiten hasten zaren unetik beheneko puntutik lehen aldiz pasa arte **9 segundo** pasatzen dira eta une horretan **115km/h** abiadura lortzen duzu, **48m** jaitsita. Orain arte egin eta eskaini ditugun salto guztietatik luzeena da, tartean igoalditxo hori duela eta, saltorik handiena ez baldin bada ere (70m-koak ere egin baititugu).

Beraz, lehenbizi zubisalto arrunta egingo duzu, aurretik esan dugun guztiak berdintsu balio duelarik. Desberdintasuna **lehenengo penduluaren erdia egin eta gero** dator, sokek duten bigarren blokeoa askatzen dugunean eta **bigarren erorikoa egiten denean**. Unetxo batez sokak apur bat destentsatuko dira, eta **berriz erortzen ari garela sentituko dugu**. Une horretan ikusgarria da jendeak jartzen duen aurpegia eta egiten dituen keinuak. Gainera, tartean zubirik ez dagoenez, oso-osoa ikusten da saltaria, zubia ikustezina bailitzan.

Hori dela eta, zubi2saltoa ikusten ari denari salto bat zubiaren **alde batetik begiratzea** gomendatzen diogu, **eta hurrengo salto bat beste aldetik**. Hortik aurrera, bakoitzak erabaki dezala zein duen nahiago. Polita da lehen aipatu dugun saltariaren aurpegia ikustea, bigarren erorikoan zehar. Baina ikusgarria da ere, lehenengo eroriko (itxuraz) txiki baten ostean, zein distantzian agertzen den saltaria, salto egiten duen aldetik begiratuta.

Gero penduluan kulunka egongo gara jaisten zaituztegun bitartean. Lurrean, **gogoratu deskonexioak eta konexioak egitea**. Kasu honetan konexioa lur hartu duzuen (eta salto egin duzuen) **alde beretik** botatzen dizuegun **soka gorri** baten puntan egin behar da. Baina sokan lotu beharrean mosketoian barruan sartuta dagoen 8 formako **mosketoitxo baten zulo librean** egin behar da. Mosketoitxo berezi hori biragailua da, soken artean sor daitezkeen korapiloak (espiralak) kentzen laguntzen diguna.

Hurrengo saltoa egiteko bidean gaude. Horretarako 8 **soketatik tira** egin behar dugunez, **zuen laguntza eskertuko dugu**, baina guk eskatzen dugun moduan eta unean.

Igotzeko unean, bidean gora egin behar duzue, zabalduera iristerakoan, ordea, mendian zehar (pinu artetik) hartu behar duzue. Hortik aurrera bidea zapalduta eta aski argi dago. Ekintza hauetan gogorrena horixe da, malda hori guztia, hain erraz jaitsi duguna, igotzea.

Euripean suertatuz gero edota gauez, zaudete behean eta eska ezazue lau saltoan behin (edota 8 saltoan behi) kotxe bat (ala furgoneta bat) zuen bila jaitsi dadila.

GOMASALTOA

Zubisaltoa valsa baldin bada, **gomasaltoa rock & roll**. Guk, definitzerakoan, gomasaltoa Richter eskalako 14^o-ko lurrikara dela esaten dugu. Lurrikara partikularra, saltariak bakarrik sentituko duena.

Gomasaltoaren jatorria eta historia ezagutu nahi izanez gero, begira www.ehabentura.net.

Gomasaltoa, jakingo duzunez, yo-yo moduko mugimentua da. Goma lotuta dagoen alde beretik egiten dugu salto (gomapenduluan zubiaren bestaldetik), eta **ia modu bertikalean errebotatzen dugu, behin eta berriz**. Erreboteak gero eta txikiagoak izaten dira, baina oso sentsazio berezia da grabitate eta ingrabitae alternatuarena.

Azelerazio eta desazelerazio guztiak 1g-koak edota mantsoagoak dira (balio absolutoz ari gara, positiboa ala negatiboa den begiratu gabe), beraz **ez da astindurik sentitzen**, zangotatik lotuta zutik salto egiten ez baldin baduzu, behintzat.

Arrisku bat badago, erreboteetan gomaren kontra joatearena. Arrsiku hori txikia da, baina hor dago, noizean behin saltari batek goma jotzen du eta igurtzi bat egiten du. Gure esperientzian, ordea, ez da sekula kezkarri izan, azalean gorrituren bat besterik ez. Baina garrantzitsua da goma eskura izanez gero ez sekula hau heltzea. **Gomasaltoa Gomasaltoa edota gomapendulua eginez gero, ez ezazu sekula goma heldu**. Posible da erreboteetan goma eskura jartzea, eta zuk zerbait harrapatu nahian, honi heltzea. Kontuz, oso jokabide arriskutsua da hau, gutxienez min hartuko duzu eskuan: atzazalen bat hauts dezakezu, hatzamarren bat okertu ala hautsi, azala erre edota gihar tiroiren bat nozitu. Ez ezazu deus ere heldu, edota, asko jota, zeure gorputzaren edozein atal, edota bularrera doakizun soka. Inoiz ere ez goma!

Salto egiterakoan, beti bezala, **fida zaitetz**. Itxaron atzerakontua, aska zaitetz eta salto egin. Ez ezazu sekula barandila azken unean heldu, oso larria izan daiteke.

Velcro zintaren sistemarekin ekipatu baldin bazaitugu, **itxaron kentzea agindu arte**. Une horretan buruz gora jarriko zara eta lurrera jaitsiko zaitugu, behar den martxan. Zuzenean zangotatik lotuta baldin bazoaz, ordea, hobe lotuta joango zara, baina lur hartzea apur bat delikatuagoa izango da, buruz bera jaitsiko baitzaitugu. Horrela izanik, norbait beharko dugu behean, lur hartzen laguntzeko.

Lurrean dagoeneko, **aska itzazu zeure bularreko eta zangoko konexioak, lotu ezazu** horietako bat (bakarra, besteak atzetik etorriko dira) botako dizugun **soka gorriaren puntan** dagoen 8 eiteko mosketoiaren zulo librean. Hori eginda, **abisu eman** eta zubian geratu garen guztion artean gomatarra igoko dugu. Horretarako guztion laguntza eskatzen dugu, beraz.

Igotzeko, zubi2saltoaren kasuan bezalaxe, bidean gora egin behar duzu(e), zabaldunera iristerakoan, ordea, mendian zehar (pinu artetik) hartu behar duzue. Hortik aurrera bidea zapalduta eta aski argi dago. Ekintza hauetan gogorrena horixe da, malda hori guztia, hain erraz jaitsi duguna, igotzea.

Euripean suertatuz gero edota gauez, zaudete behean eta eska ezazue lau saltoan behin (edota 8 saltoan behi) kotxe bat (ala furgoneta bat) zuen bila jaitsi dadila.

GOMAPENDULUA

Gomasaltoaren kasu berezia besterik ez da (guk asmatutakoa), **salto** alde beretik egin beharrean, zubisaltoan bezala, **zubiaren kontrako aldetik egiten da**, beraz, gomasaltoaren efektuari pendulu mugimentua gehitu behar zaio.

Ez zara gomasaltoan bezainbat eroriko (goma berberarekin eginez gero), goma ez baita hainbeste estiratzen (proportzioan). Baina, halere, salto ikusgarria eta, itxuraz, kaotikoa da. *Kañeroa*.

Gainerako ohar eta agindu guztiak, gomasaltoaren kasuko berak dura, beraz, irakur ezazu aurerko atala.

GOMATIROA

TIROLINA

TIROL JAUZIA

SALTO KONTRAPISATUA

SUPERSALTOA